

DEIALDIA. GAZTEEN EGITASMOETARAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK.

Lehena. Sarrera.

Diru laguntza deialdi hau Eskoriatzako Gazteria zerbitzuak sortu du gazteen parte hartzea eta gazteek antola ditzaketen ekimenak aurrera eraman daitezen bultzatzeko asmoz. Laguntza jaso ahal izateko ekimen horiek izaera soziala, kulturala edota hezigarria izango dute.

Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizartekintzarako zuzendaritzak argitaratutako EAeko Gazte Elkartegintzaren Liburu Zuriak jasotzen duenez, gazte elkarteez gain ezinbestekoa da elkartu gabeko gazteekin ere egitea sustapen lana. Izan ere, euskal gazte gehienak ez daude irabazi asmorik gabeko entitateetan sartuta, eta gutxi batzuk dira gazte elkarteetan parte hartzen dutenak.

Ondorioz, Eskoriatzako Gazteria zerbitzuak gazteen ekimenerako gaitasuna bultzatu nahi du, gazte elkarteetan egon edo ez kontuan izan barik. Hau da, irabazi asmorik gabeko entitate baten laguntza eta babesia ez duten gazteen proiektuak bultzatu eta sustatu nahi dira, horretarako ezinbestean juridikoki antolatu beharra izan gabe. Azken finean, herrian gazteen parte hartzea bultzatu nahi da, beti ere, Eskoriatzako Udalerriarentzat interesgarriak eta onuragarriak diren ekimenak gauzatzeko.

Bigarrena. Diru laguntzaren helburuak.

Gazteak herri bizitzan parte hartzera bultzatzea. Gazteei diru galera ekar dakiekeen edozein ekimen sozial, kultural edo hezigarri antolatzeko diru laguntza ematea; hau da, sormen ekintza edo izaera horretako egitasmo positiboak burutu ditzaten laguntzea, dirua izan ez dadin egitasmo edo ideia hori aurrera eramateko traba.

Hirugarrena. Diru laguntzaren zenbatekoa eta aurrekontuak.

Deialdi honetarako aurrekontua 600 eurokoa izango da, Eskoriatzako Udalak onartuta duen 2015eko aurrekontu orokorraren 040548145620042015 partidaren kontura.

Diru laguntzaren onuradunak edo onuradunek beste administrazio batetik diru laguntza jasotzen badu, Eskoriatzako Udalari jakinarazio beharko dio. Beste diru laguntza bat jasotzea ez da udalak ematen duena ukatzeko arrazoia izango, baina onuradunak ezingo du inolaz ere gainfinantzaketarik jaso.

Dirulaguntza honek kostuaren %100 diruz lagundu dezake baldin eta dirurik badago horretarako.

Diru laguntzaren onuradunak aukeratzeko puntuazio sistema bat zehaztu da eta horren arabera banatuko da diru laguntza.

Puntuazioa sistema hori ondokoa izango da:



1. Proposatutako proiektuak proiektzio publikoa izatea: gehienez 15 punt
2. Proposatutako proiektua euskaraz izatea edo euskararen erabilera bultzatzea: gehienez 20 puntu
3. Proiektuaren parte hartzaile kopurua: gehienez 15 puntu

Laugarrena. Eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa.

- Diru laguntza eskaera.
- Diruz laguntzeko ekintzaren proposamena. Memoria
- Gastuaren aurrekontuak.
- NAN fotokopia edo IFK fotokopia
- Eskatzailea adinez nagusia izanez gero, Gizarte asegurantzaren obligazioekin eta Foru Aldundiarekin eguneratuta dagoen ziurtagiria.
- Gazte elkarte, errolden elkartean izena emanda badago, irabazi asmorik gabekoa izatea.

Bosgarrena. Baldintza formalak.

Diru laguntza eskaera egiteko, udal eskaera orrialde arrunta erabiliko da eta bertan gazteria zerbitzura zuzenduko dela adierazi beharko da. Horrekin batera, laugarren puntuan zehazten diren dokumentuak atxikitu beharko dira.

Seigarrena. Dirulaguntzaren onuradunak.

Diru laguntza hauek eskatzeko ondoko baldintzak bete behar dira:

- a) Elkarte Erroldan izena emanda dagoen gazte elkarte izatea, edo egitasmo bat aurrera atera nahi duen gaztea, edo Elkarte Erroldan izena eman ez duten gazte talde bat.
- b) 20012. urtetik hona Eskoriatzan erroldatuta egotea.

Zazpigarrena. Diru laguntza eskaera aurkezteko epea.

Diru laguntza eskaera 2015eko urriaren 2a arte aurkeztu ahal izango da, egun hori barne. Eskaerak beharrezko baldintzak betetzen ez dituzenean edo eskatutako dokumentazioa osatu gabe aurkezten denean, eskatzaileari jakinaraziko zaio 10 eguneko epea duela eskatzen den dokumentazioa aurkezteko. Eskaerak Udal erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira, eskaera orri arrunt baten bidez, astelehenetik ostiralera 10:30etik 13:30era.

Zortzigarrena. Diru laguntza emateko organo eskuduna.

Eskoriatzako Gazteria zerbitzuari dagokio aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzea, ezarritako puntuazio sistemaren bidez. Behin proiektu guztiak aztertuta, Gazteria zerbitzuak



emaitzak eta txosten teknikoa aurkeztuko ditu Kultura batzordean, eta alkateari proposamena bideratu. Alkateak erabakiko du diru laguntza nola banatu.

Bederatzigarrena. Onuradunen betebeharrak.

Diru laguntza jaso duten ekintzek honako hauek bete beharko dituzte derrigorrez :

a- Ekintzek 2015ko azaroaren 30a baino lehen bukatuta egon beharko dute.

b.-Gazteentzako egindako ekintza subentzionatuak euskaraz izango dira. Argitaratzen diren idatziak, iragarkiak, oharra eta bozgorailuz ematen diren mezuak ere euskaraz egon beharko dira.

c.-Ekintzaren propagandan Udalak diruz lagundutako ekintza dela adierazi beharko da; horretarako, dagokion batzorde informatzailean diru laguntza jaso duen ekintzaren iragarki kartela erakutsi beharko da ekintza egin aurretik.

d.- Emandako diru laguntza ezingo da beste ezertarako erabili.

e.- Diruz lagundutako ekimenaren materiala, argazkiak edo bideoak udalari ematea webgunean zintzilika dezan.

f.- Dirulaguntza hau eskatuz gero, oinarriak onartzen direla ulertuko da.

Hamargarrena. Diru laguntza ordaintzea.

Diru laguntzaren %75a onartu eta berehala ordainduko da; gainontzeko %25a, aldiz, zuriketa egin ostean.

Hamaikagarrena. Epea eta justifikatzeko modua.

Diruz lagundutako ekintza zurrizko azken eguna 2015ko abenduaren 1a izango da. Egun horretarako antolatutako ekintzaren memoria, sarrera eta irteeren balantzea eta fakturak aurkeztu beharko dira. Fakturak 2015 urtekoak izan beharko dira.

Gastu zuriketa aurkezten ez bada, diru laguntza galdu egingo da. Gastu zuriketa diru laguntzaren zenbatekoa baino txikiagoa bada Eskoriatzako Udalak proportzioan gutxituko du diru kopurua.

